

Hurrengo jarduerak

Ikastaro eta tailerretarako izen-emateak 012aren bidez

Otsaila

Ezkoritzeko urmaelera gidatuko bisita, Zolina

Urtero, otsailaren 2an **HEZEGUNEEN MUNDUKO EGU-NA** ospatzen da. Hori dela eta, neguko hilabete honen egun batean Ezkoritzeko Urmaelera hegaziak begiratzera joatea erabaki dugu. Hitz ordua otsailaren 16an izango da, 10:00etan, Zolinako aparkalekuan. Gida: Haritz Sarasa, ornitologia zalea eta Urmaeleko fauna oso ongi ezagutzen duen pertsona. Arropa eta zapata erosoak, eta prismatiko edo teleskopioa eramatea aholkatzen da. Haur eta helduentzako jarduera. Izen emateak **otsailaren 12ra arte**. Euria egiten badu, bertan behera utziko da.



Ikastaro praktikoa: Bio-ongarriak eta salda mineralak.

Landareen portaera eta lurra hobeki ezagutzen lagunduko dizu, eta baratzaren ekoizpen kalitatea eta kantitatea hobetuko duten prestakin xumeak egiten ikasiko duzu.

Ilundainen, otsailaren 20 eta 27an eta martxoaren 6, 13 eta 20an, 18:00etatik 21:00etara.

Emalea: Jesús Ángel Eslava, Nekazaritza Organikoan diplomatua. Matrikula: 28 € erroldatuak eta 40 € erroldatu gabeak.

Izen emateak, **otsailaren 12ra arte**.

Mutiloako jaki ekologikoen kontsumo taldearen ate irekiak

Osasuntsu jan nahi duzu? Inguru-menak kezkatzen zaitu? Inguruko nekazari eta abeltzainen jakiak nahi dituzu? Bat egin kontsumo taldearekin.

Bere funtzionamendua, kontsumitzen dituzten produktuak eta bere kideak ezagutu nahi badituzu, pasa zaituz Aranetxeatik, Mutiloako Gazte Lekutik, otsailaren 20an 13:45etik 14:15era eta otsailaren 27an 13:45etik 14:15era eta 19:00etatik 20:00etara.



2014ko Zuhaitzaren eguna, otsailak 24a igandea.

Egitaraua

10:30 Udaletxean. Bakoitzak ekarritako jakiak jaso.

Landaketarako lekura (Mutiloako hilerria) bizikletan edo oinez joango gara.

12:15 Landaketaren amaiera.

12:45 Hamaiketako ekologikoa eskolan.

Izen emateak **otsailaren 17ra arte**. Izen ematea doakoa da, baina Aranguren Ibarreko Elikagaien Bankurako jakien ekarpena eskertuko da. Ondorengo beharren zerrendan aipatzen diren horietatik bat edo bi ale.

Beharrak: lekaleak, olioak, irina, azukrea eta haragi edo arrain kontserba-latak. Jakiak egun honetan bertan ekarriko dira.

Ba al dakizu...

Suedia izan zela 1840. urtean Zuhaitzaren Eguna ospatu zuen lehenengo herrialdea? **Baso-baliabideen** garrantziaz, zuhaitzei eskaini beharreko zainketaz eta hurrak horretaz jabetzeko beharraz ohartu zirelako hasi ziren ospakizun honekin.

Urte batzuk beranduago, zenbait suediarrek Estatu Batuetara emigratu zuten eta eurekin eraman zuten herentzia kultural hori, bertan ere 1872. urtean Zuhaitzaren Eguna ezarri zelarik. 1969an Erromako hirian egindako Munduko Baso Biltzarrean, ekainaren 28an **Munduko Zuhaitzaren Eguna** ospatuko zela adostu zen.



NATURGUNEA
Mutiloa plaza z/g
(Udaletxe berria)
Lehen solairua

Harrera ordutegia:
astearte eta ostegunak 11.30etik 13.30era
Telefonoa 948151382
medioambiente@aranguren.es



Otsaila

Okintza eta gogokintza ekologikoko tailerra

Osagai ekologikozko oreka egiten ikasi, ogi integrala, baguette estiloko etxeko ogia eta gozogintza (txokolate puskadun palmeratxo edo gailetak). Labianon, otsailaren 25 eta 26an. Bi ordutegi aukeran: goizez 9:30etik 12:30era eta arratsaldean, 16:30etik 19:30era. Arratsaldeko tailerrak haurtzaindegi zerbitzua dauka, haur bakoitzeko 5 € ordaindu beharko delarik. Izena ematean eskatu. Emaleak: Inés Muñoz eta Arkaitz León. Lakabeko okindegian hasi ziren eta 2008tik ari dira ikastaroak ematen. Izen ematea: 25 € erroldatuak eta 35 € erroldatu gabek. Izen emateak **otsailaren 17ra arte**.

Martxoa

Sendabelarrei eta beren betiko erabileari buruzko ikastaroa

Aranguren Ibarreko sendabelarrek eta beren erabilerak ezagutzeko. Ilundain, martxoaren 11tik maiatzaren 13ra, 16:00etatik 20:00etara. Emalea: Laura Gurbindo, naturopata. Izen ematea: 70 € erroldatuak eta 130 € erroldatu gabek. Izen emateak **otsailaren 24ra arte**.



Eraginkortasun energetikoari buruzko tailerra

Kontzeptuak eta oinarriko aholkuak. Tailerraren lehen zatia teorikoa da eta bigarrenean, parte hartzaileetako baten etxera joan eta bertan ikusiko da aipatu diren aholkuak nola martxan jarri.



Emalea: Josu Martínez Oroz, bioeraikuntzako formakuntza du eta eraginkortasun energetikoari buruzko etengabeko ikerketan aritzen da.

Martxoak 22, 10:30etik 13:00etara, Mutiloan. Doakoa. Izen emateak **martxoaren 17ra arte**.

Mutiloako Zakatina

Martxoaren 23, igandea, 12:00etatik 14:00etara, Aranetxean, Mutiloako Gazte Lekuan. Dirurik gabeko azoka, haur eta helduentzako doako tailerrekin.

Ekarri dagoeneko behar ez duzun baina egoera onean dagoen hori.

Begiratu piska bat, agian eraman nahiko duzun zerbait topatuko duzu: arropa, liburuak, etxetresna txikiak, jostailuak...

Zakatina antolatzen duen borondatezko langileen taldean laguntza eman nahi baduzu, jarri zaitetz harremanetan Milarekin (665862118) edo Naturgunearekin telefonoz edo emailaz.

Mutiloako nekal-azoka gardenak. Produktu ekologikoak, bertakoak eta garaikoak

Erantzukizunez egindako kontsumoa kontsumorik logikoena dela uste dugu. Garaiko produktuak, bertakoak eta ingurunearekiko begirunez lortuak. Produktuak zuzenean nekazari eta abeltzainei erosteko aukera egonen da. Martxoak 29an, 10:00etatik 14:00etara, Mutiloan.

OHARRA: Akats baten ondorioz, Naturgunearen egutegian Santa Feliziarako erromerien datak oker agertzen dira. Data zuzenak honakoak dira:

Ekainak 17: Ibarreko erromeria Santa Feliziaren basilizara.

Ekainak 29: Erromeria Labianoko Santa Felizia basilizara.

Jaki ekologikoen ekoizpen eta kontsumoa

Eko gehiago mesedez

Abenduan 6. zenbakidun Ekobuletina argitaratu zen, elikadura, nekazaritza eta abeltzantza ekologikoari buruzko aldizkaria. Ale honetan, Ibarreko ikastetxe publikoetako jantoki osasuntsuei buruzko informazioa dago, kinoari buruzkoa, oilasko ekologikoari buruzkoa eta garaiko elikagaiei buruzkoa. Interesa duzuenoi udaletxeko webgunetik jaisi dezakezuela gogorarazten dizuet: www.aranguren.es, **Informazio Buletinak** ataletik.



Ibarreko bioanitzasunaren zaintza



Mozolo egitasmoa

Mozoloa, *Athene noctua*, gaueko harrapari txiki bat da, habitat oso ezberdinetan bizitzen dena nahiz eta arboladi sakabanatuak nahiago dituen (larreak, olibadiak...). Udan nagusiki intsektuak jaten ditu; eta neguan, ugaztun txikiak. Beraz, laboreen aliatu oso ona da, kalte egin diezaioketen populazioak kontrolatzen baititu. Ez du habiarik eraikitzen, zuhaitz, horma, harrobietako... zuloak erabiltzen ditu.

Ibarrean habia egiten duten espezie horretako bikote kopurua handitu dadin, leku estrategiko ezberdinetan jarriko diren habia-kutxak egin dira.

Españolezko errefracuen artean ezaguna da hegazti honen bizitzeko lekuetako bati erreferentzia egiten diona: "cada mochuelo a su olivo".

Zure jabetzan habia-kutxa bat izan nahi baduzu, martxoaren 13ra arte e-posta edo telefonoz Naturgunearekin harremanetan jarri eskatu dezakezu. Baldintza bakarria Ibarrean eta espeziearen ezaugarri biologikoen arabera beharretara egokitutako lekuan (adieraziko dizkizugun altuera, orientazioa...) jartzea izango da.

Apo-hontzarentzako habia-kutxa Jose Luis Clementeri eman zitzaion eta Mutiloako bere lorategian jarriko du.

Eguneko tximeleten jarraipen programa ibarrean

Tximeletak ingurumenaren egoeraren adierazle oso ona dira. Horregatik, beren ikerketa jarraiak ingurumen mailako eta epe motz eta luzerako espezieen egoerari buruzko datu asko lortzeko aukera emango luke. Jarraipena boluntario bakoitzari esleituko zaion leku batetara aldiari aldiko bisita egitea izango da, bertan tximeletei buruzko oharra (helduak, errunaldiak, larbak...) hartu eta 1976. urtean Erresuma Batuan hasi zen Europa mailako egitasmo batean sartuko dira..

Zure laguntza eskertuko dugu. Ez duzu tximeletei buruzko ezer ere jakin behar, doako formazioa eta profesionalen zein ibarreko tximeleten gidaren laguntza eskainiko baita

Proposamenaren interesik baduzu, Mutiloako Ibaialdeko pasealekuko udaleko lokaletan, martxoaren 8an, goizeko 11:00etan eskainiko den informazio saiora bertaratu zaitzake.



Hiriko berde guneak, fauna eta floraentzako eremu babesturak

Duela zenbait hilabete Mutiloako zenbait berdegune bertako fauna eta floraentzako eremu babesturako balio dezaten kudeatzen ari dira. Belarraren ordeztu bertako landareen hazkundera sustatuz eta aldizkako mozketarik ez eginik, modu naturalean garatzeko aukera emanaz. Horrela, landare hauetan intsektu eta ugaztun txikiei babes eta elikagaia topatzeko aukera ematen diegu. Holako gauza xumearekin zenbait helburu betetzen dira:

- Hiri eremuak bertako fauna bizitzeko leku desegokiak izateari utzi eta bizi erreserba txikietan bihurtzen dira.
- Hiriguneetara larre-landareak itzultzen dira, ingurune honetako klimara hobeki egokituak.
- Gune hauek korridore ekologikoak ere badira, hau da, eremu berde ezberdinak lotzen dituzte animaliak alde batetik bestera arriskurik gabe mugitzeko aukera izan dezaten eta beren populazioen desagerpena ekar lezakeen haien arteko isolamendurik egon ez dadin.
- Denborarekin lorategien kudeaketa ekonomiko hobeak dakar.

Aurki eremu hauek seinaleztatuta ikusiko dituzu.

Hondakinak

Elkartasuneko birziklaia

Ikasturte hasieratik San Pedro ikastetxean **agortuta dagoen idazteko materiala jasotzen ari dira: boligrafoak, errotulagailuak, tipexa, idazlumen kartutxoak, etab...** Horrekin jasotako dirua Dravet Sindromea Fundazioari laguntzeko erabiliko da (0.02 € aleko).

Kultur Etxean, Kiroldegiko tabernan eta Kontsultategian plastikozko tapoiak jasotzen jarraitzen dugula gogorarazten dizuegu, gainera.



Ingurumen baliabideak



Animalandia animalien bioaniztasunerako eremu bat da. Web orri honetan, etxeko kuxkuxeroenek mundu osoko 4000 espezie baino gehiagori buruzko informazio fitxak topatuko dituzte: argazkiak, informazioa, baita soinu erregistroak ere. Jolas eta bestelako baliabideak ere aurkitu daitezke. <http://herramientas.educa.madrid.org/animalandia/>

Denbora bankua



Denbora banku bat tokiko ondasun eta zerbitzuen elkartruckerako sare bat da (hizkuntzak, konponketak, brikolajea, etxeko lanak, informatika, ikastaroak, tailerrak, masajeak...). Txanpon trukearen alternatiba izan daiteke.

Proposamen hau zure interesekoa bada, jar zaitez Naturguneako teknikarierekin harremanetan.

Lehiaketak

Aranguren Ibarreko ingurumen argazkien 2014ko Lehiaketa



Aurten lehiaketaren lema "Diruarekin erosi ezin denaren balioa" izango da. Argazkiek Aranguren Ibarreko ingurune naturala erakutsi beharko dute, horien bidez gure ingurune naturalaren gaurko eta betiko balioa eta edertasuna ikustea nahi baitugu.

Argazkiak aurkezteko epea irailaren 23tik urriaren 21era izango da. Oinarriak udaletxean eskatu edo web guneetik (www.aranguren.es) jaitsi ditzakezu.

Ezagutu Ibarra

Oraingoan Ibarreko floraren txanda da: landare honen izena baldin badakizu, gaztelania zein euskaraz, idatzi eposta edo gutuna Naturguneara. Martxoaren 31 bitartean iristen diren erantzun zuzen guztien artean ingurumenarri buruzko haurrentzako liburu baten zozketa egingo da.

27. buletinean agertutako argazkia txepetxarena da, Troglodytes troglodytes, chochín gaztelaniaz, Europako txori txikienenetariko bat. Ibarrean bizi da eta bere elikadura intsektu bidezkoa da. Egindako zozketaren irabazlea, liburu bat lortu duena, Rosa Arnedillo da, Labianokoa. Zorionak!



Atera zure bizikleta kalera. Mugikortasun jasangarria Ibarrean.



Jarraitu zure txarteletan zigiluak jarriz Udaletxera, Kiroldegira, Kultur Etxera, Aranetxeara, San Pedro eskolara eta Ttipi Ttapara zoazen bakoitzean. Aurten patinetan bazoaz ere, eska dezakezu zigilua. Ikusi oinarriak Udaletxeko webgunean.